

EUSKAL AEko TXIKIZKAKO MERKATARITZAREN INDIZEA (BMIT). 2013ko 4. hiruhilekoa

Euskal AEko txikizkako sektoreko salmentak %0,4 gehitu ziren 2013ko laugarren hiruhilekoan

Gasolindegia sartu gabe, salmentak %1,4 gehitu ziren

Eustatek emandako datuen arabera, 2013ko laugarren hiruhilekoan, Euskal AEko txikizkako merkataritzaren sektorean salmenta nominalak %0,4 gehitu ziren, aurreko urteko hiruhileko beraren aldean. Gasolindegia sartu gabe, sektoreko salmentak %1,4 gehitu ziren urte artekoan.

Aurreko hiruhilekoaren aldean salmenta-indizea %1,7 nominala gehitu da, urtaro-eraginak kenduta.

1. taula. Euskal AEko txikizkako merkataritzaren indizea. Urte arteko eta hiruhile arteko aldakuntza-tasa. IV/2013(p)

	UNEKO PREZIOAK		PREZIO FINKOAK	
	t / t-4	t / t-1	t / t-4	t / t-1
INDIZE OROKORRA lurralde historikoaren arabera				
Euskal AE	0,4	1,7	-1,2	1,6
Araba	-1,5	2,1	-2,5	1,9
Bizkaia	1,5	2,9	-0,2	2,8
Gipuzkoa	-0,6	-0,3	-2,2	-0,5
INDIZE OROKORRA sektorearen arabera				
Elikagaiak	-1,4	0,8	-2,4	0,6
Elikagaietan espezializatuta	3,7	2,9	1,9	4,3
Ez espezializatuta, elikagaidunak bereziki	-4,2	-1,1	-4,7	-0,7
Beste produktuak	3,6	5,3	0,9	4,4
Pertsonen hornikuntzan espezializatuta	3,3	5,4	-2,0	7,2
Etxearen hornikuntzan espezializatuta	-1,2	2,1	-2,0	1,3
Beste kontsumo ondasun batzuetan espezializatuta	8,1	6,8	7,5	4,6
Ez espezializatuta, gainerako produktudunak bereziki	4,0	4,5	3,0	3,8
Automoziorako erregaia	-8,2	-3,1	-8,1	-4,1
SALMENTEN INDIZEA zerbitzugunerik gabe	1,4	3,3	-0,5	2,8
ENPLEGU INDIZEA				
Euskal AE	-3,6	-0,1		

t / t-4 Urte arteko aldakuntza. Egutegiaren eragina zuzendutako datuak.

t / t-1 Hiruhile arteko aldakuntza. Datu desestazionalizatuak.

Iturria: EUSTAT. Euskal AEko txikizkako merkataritzaren indizea (BMIT)

Elikagaien salmenta nominalak %1,4 gutxitu ziren 2013ko laugarren hiruhilekoan; Gainerako produktuenak %3,6 gehitu ziren eta automobilgintzarako erregai-salmenta %8,2 gutxitu, beti ere 2012ko aldi beraren aldean.

Elikagaien txikizkako merkataritzan espezializatua %3,7 gehitu zen, eta elikagaiak nagusi diren ez-espezializatuan %4,2 gutxitu. Gainerako produktuen txikizkakoan %1,2ko jaitsiera dago etxeko ekipamenduen merkataritza espezializatuan, eta indar ezberdinetako igoerak gainerako sektoreetan. Kontsumoko beste ondasunen espezializatuan %8,1 gehitu zen, gainerako produktuak nagusi diren ez-espezializatuan %4,0 eta pertsonaren ekipamenduan espezializatuan %3,3.

Aurreko urteko hiruhileko beraren aldean, Bizkaian $\%+1,5$, Araban $\%-1,5$, Gipuzkoan $\%-0,6$.

Prezio finkoetan, alegia prezioen efekturik gabe, txikizkako merkataritzaren salmentak $\%1,2$ gutxitu ziren laugarren hiruhilekoan

Txikizkako salmentek -gasolindegia sartu gabe- $\%0,5$ eko jaitsiera erreala -prezio finkoetan- izan dute aurreko urteko hiruhileko beraren aldean.

2013ko laugarren hiruhilekoan Euskal AEko txikizkako merkataritzaren salmenta errealetan $\%1,6$ ko igoera izan da hirugarren hiruhilekoaren aldean eta urtaro-eraginak kenduta.

Elikagaien txikizkakoan jaitsiera erreala $\%2,4$ izan zen; gainerako produktueta $\%0,9$ ko igoera erreala, 2012ko hiruhileko beraren aldean; automobilgintzarako erregai-salmentak $\%8,1$ gutxitu ziren.

Elikagaien txikizkakoan urte artekoa positiboa izan da espezializatuan, $\%1,9$; elikagaiak nagusi diren ez-espezializatuan, $\%4,7$ ko jaitsiera. Pertsonaren ekipamenduan espezializatuan eta etxeko ekipamenduan $\%-2,0$ bietan. Kontsumoko beste ondasunetan espezializatuan $\%7,5$ eko igoera eta gainerako produktuak nagusi diren ez-espezializatuan $\%3,0$ koa.

Hiru lurraldeetan izan zen jaitsierarik salmentetan termino errealetan: Araban $\%2,5$, Gipuzkoan $\%2,2$, Bizkaian $\%0,2$, aurreko urteko hiruhileko beraren aldean.

Euskal AE osoan, 2013ko hirugarren hiruhilekoaren aldean, merkataritzako sektorean landunen kopurua $\%0,1$ gutxitu zen 2013ko laugarren hiruhilekoan.

Urteko balantzea

Urte osoan, txikizkako merkataritzaren salmentek $\%1,9$ ko jaitsiera nominal metatua izan dute. Gasolindegia sartu gabe, gainerakoen salmentetan $\%1,9$ ko jaitsiera dago 2013ko datu metatuetan 2012koen aldean.

Termino errealetan, sektorea osorik $\%4,4$ jaitsi da eta gasolindegirik gabe $\%4,7$.

Tasa nominaletan Gipuzkoa eta Bizkaian $\%-1,8$ urte osoan, eta Araban $\%-2,3$. Prezio finkoetan: Gipuzkoan $\%-4,3$, Bizkaian $\%-4,4$, Araban $\%-4,8$.

2013an txikizkako merkataritzaren enplegu-galera aurreko urteko batez bestekoaren aldean $\%4,7$ izan da Euskal AEn.

1. taula. Euskal AEko txikizkako merkataritzaren indizea. Urte arteko aldakuntza-tasa

	UNEKO PREZIOAK			PREZIO FINKOAK		
	2011	2010	Δ%	2011	2010	Δ%
INDIZE OROKORRA lurralde historikoaren arabera						
Euskal AE	94,1	95,9	-1,9	87,1	91,1	-4,4
Araba	96,9	99,2	-2,3	87,7	92,1	-4,8
Bizkaia	93,8	95,5	-1,8	87,5	91,5	-4,4
Gipuzkoa	93,3	95,0	-1,8	86,2	90,1	-4,3
INDIZE OROKORRA sektorearen arabera						
Elikagaiak	95,5	97,6	-2,1	88,4	92,8	-4,7
Beste produktuak	90,1	92,0	-2,1	86,3	90,8	-4,9
Automoziorako erregaia	109,9	109,8	0,1	85,9	86,6	-0,8
SALMENTEN INDIZEA zerbitzugunerik gabe	92,4	94,2	-1,9	87,2	91,5	-4,7
ENPLEGU INDIZEA						
Euskal AE	90,9	95,4	-4,7			

Iturria: EUSTAT. Euskal AEko txikizkako merkataritzaren indizea (BMI)

Informazio gehiago:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián, 1. 01010 Vitoria-Gasteiz

Prentsa zerbitzua: servicioprensa@eustat.es Tel.: 945 01 75 62

Euskal AEko Txikizkako Merkataritzaren Indizearen gaineko prentsa-ohar gehiago

Euskal AEko Txikizkako Merkataritzaren Indizearen gaineko datu-bankua